

ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA

M. Angeles de la Caba

Irakasgaiaren deskribapena

Irakasgai honen xedea da hezitzaileek (irakasle, tutore eta orientatzaileek) duten orientazio-funtzioaren osagai oinarritzko eta bereizgarriak ezagutaraztea. Orobat, ikastaldearen garrantzia azpimarratzen du, zertarako eta talde horren premiei egokitzen zaizkien interbentzio- eta tutoretza-planak egiten gaitzeko, norbanakoentzako egitasmoen osagarri.

Gaitasunak

- Profesionalki jabetzea hezitzaile izateak esan nahi duenez
- Ezagutzea eta praktikan jartzen jakitea irakasle, ikasle, familia eta erkidegoarekiko hezkuntza-harremanetan interakzio positiboari laguntzen dioten elementuak.
- Taldean lan egiteko gaitasuna garatzea, kontuan izanik orientatzea talde-lana dela.
- Orientatze-funtzioa eta bereziki tutoretza-funtzioa interbentzio-ekintza gisa sumatzea, arazoei aurre hartzeko eta gaitasun intelektual, sozial, emozional eta etikoak garatzeko.
- Tutoretza-plan bat diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, bereziki ikasleen egitasmo pertsonal eta profesionalerako gaitasunak eraikitzeari begiratzen diona.

Ikasgai-zerrenda

1. ORIENTAZIOA HEZKUNTZA-SISTEMAN

- Orientazioa: Orientazioaren bilakaera, printzipio orokorrak eta esparruak
- Orientazio Departamentua Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan
- Orientazio-funtzioak irakasleen, tutoreen eta orientatzaileen artean: ikaskuntza, garapen pertsonala eta sozializazioa

2. TUTORETZA

- Tutoretza Planaren garapena
- Tutorearen egitekoa jarrera lankidetzazko, demokratiko eta gizabidezkoetan hezteko eta jarrerok garatzeko; sozializazioa, bizikidetzeta eta aniztasuna
- Tutoretza-programak aztertzeke eta aukeratzeko orientabideak: gelarako interbentzio-programak, garapen intelektual, emozional, sozial eta etikorako

3. IKASTALDEA, PERTSONARTEKO HARREMANAK ETA ORIENTAZIOA

- Norberaren autoestimua eta pertsonen arteko harremanetarako gaitasun garapena (estimulazioa, komunikazioa)
- Ikastaldearekiko harremanak: hezitzaileen egitekoa ikastaldearen eraikuntzan, talde-dinamikak eta talde-teknikak: taldearen garapena dinamizatzeko prozedurak; rola negoziatzea eta arauak ezartzea ikasgelan
- Gatazkak konpontzea Bigarren Hezkuntzan: berdinen arteko gatazkak eta diziplina-gatazkak; eskolako jazarpenari aurre hartzea; hezitzaileen eta taldearen egitekoa, eskolan gerta litezkeen jazarpen-egoeretan babesteko

Metodologia

Aplikatu den metodologia, gehienbat, arazoetan eta kasuetan oinarritutako metodologia izango da. Metodologia mota honek praktika eta teoria integratzen ditu, Ikaslearen papera aktiboa izan behar du, irakaslea eta tutorea izateko behar dituen gaitasunak bideratzen joateko.

Ebaluazioa

Gelako praktikak: 1 puntu

Bakarkako dosierra: 3 puntu

Talde-lana: 3 puntu

Kasu praktikoa: 3 puntu

Bibliografia

Álvarez, L., y Fernández, G. (2003) *Equipos y departamentos de Orientación. Programas de asesoramiento y supuestos prácticos*. Madrid:CCS.

Bisquerra, R. (2005). *La práctica de la Orientación y la Tutoría*. Barcelona: Praxise

De la Caba, M.A (2000). *Educación Sociopersonal*. Servicio Editorial. EHU/UPV

De la Caba, M.A (2008). Hezkuntza Sozioafektiboa eskolan. *Tantak*, 19 (1), 19-49

De la Caba, M.A (2013). *Órientación Educativa y Social*. Campus Virtual: OCW

Martin, X (2003). *Tutoría: técnicas, recursos y actividades*. Madrid: Alianza.

Roffey, S (2011): *Changing behaviour in schools: promoting positive relationships and well being*. London: Sage

Sanjuán, Patxi (2003). *Tutorearentzako ideiak*. Gobierno de Navarra

Vaello, J (2009): *El profesor emocionalmente competente*. Barcelona: Grao

Oinarritzko esteka interesgarriak

Educacion social y ciudadana
educacionsocialyciudadana.com

Tutoretza-plana.OrientawikiLeioa.

<http://orientawikileioa.wikispaces.com>

<http://orientawikileioa.wikispaces.com/TUTORETZA+PLANA>)

Tutoretza-plana.Orientasare

<http://orientasare.wikispaces.com>

(<http://orientasare.wikispaces.com/tutoretza+plana>)

WebpuntoESO. Javier Longo

<http://idd00f0b.eresmas.net/index.htm>

Recursos para orientadores en apuros. Francisco Jose Hernandez

<http://chopo.pntic.mec.es/~fferna23/>